20 30

“JAIZKIBEL” DRAGA ETA “OIARTZUN” GINDAXA

La Herrerako dartsenan zingoak galdu zirenez, Pasaiako Portuko Obren Batzordeak Portuen Zuzendaritza Nagusiari draga bat eta gindaxak eskatu zizkion (dragak jasotzen duen lokatza biltzen, lekualdatzen eta botatzen duen ontzia). Eskaera hori onartu egin zen, eta dragaren lehiaketa Bilboko Sociedad Euskalduna de construcción y Reparación de Buques elkarteari adjudikatu zitzaion eta bi gindaxak, berriz, Pasaiako Victorio Luzuriaga y Constructora Gipuzkoana konpainiari. Draga 1934an jaso zen eta gindaxak, berriz, hurrengo urtean.

Dragak Jaizquibel izena jaso zuen, “rosario” motakoa, hau da, mugimenduan zegoen kate batek lotutako hainbat kaxola (rosario) ondoz ondo hondoratzen zituen, hondoan utzitako lokatza uzteko eta gindaxetara botatzeko helburuarekin.

Bere luzera 60 metrokoa da eta zabalera, berriz, 10 metrokoa. 900 tona mugitzeko gai da eta makinak lurrenekoak dira. 300 m3 dragatu ditzake orduko 3 eta 17 metro arteko sakoneretan, 2.290.000 pezetetan.

Gindaxek (JOPP1 ETA 2 izenekoak), 37 m luzera, 8 me zabalera, 2,5 m zingoa eta 250 metro3 hartzeko edukiera zuten. Ale bakoitza 289.000 pezetetan eskuratu zuten. Bere operatiba txarra izan zen eta bertan hainbat aldaketa egin behar ziren.


Draga zerbitzuan izan zen 1984. urtera arte eta geroztik, erdi baztertuta eta desegiteko zorian geratu zen, Donostiako Itsas Museoak eskatuta, Eusko Jaurlaritzak Kultur Ondare Kalifikatu izendatu arte. Ondorioz, partzialki zaharberritu zen, ez baitago nabigatzeko prestatuta. Gaur egun Pasaia San Pedro Ascorreta ontziola zaharretako harmailan erakusgai dago.



Ortoargazkia 1954. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa. UTM 30N ETRS89 // X: 588616 m // Y: 4797310 m. Jaizkibel dragak eta bi gindaxak Pasaiako portuan lan egiten ari dira, lokatza, gaur egun, Lezoko moilak aurkitzen diren lekuan ateratzen. Tximiniako eta aurreko garabiaren itzalak atzematen dira. Ateratako materialak hondora botatzeko bi gindaxez gain.




“Jaizkibel” draga, Askorreta ontziola zaharretan zaharberrituta, Pasaia S. Pedron.




Jaizkibel draga lan egiten. Aire argazkia, 1973ko hegaldia. Iturria: B5M, Gipuzkoako Foru Aldundia.

"Oiartzun" gindaxa (garabia) flotatzaile eskuratu zen mila berrien eraikuntzan erabili behar zelako. Hormigoizko egitura huts bat diseinatu zen, eta hura, batzuetan, kasko gisa erabiltzen zen, egitura metalikodun 28 konpartimendu estankok osatuta. Bere luzera 28 metrokoa zen eta zabalera, berriz, 13 metrokoa. Bertan, egitura metaliko bat ipini zen poleak eta 45 HPko motor batek tiratutako tornu bat zeukan etxola bat eusteko. 60 tonara arteko pisuak jaso zitzakeen, baina arazorik gabe probatu zen 70 tonara arte. 1951ean zerbitzuan sartu zen. Hura moila berrien obretan ez ezik, garabi arruntek altxa zitzaketen baino material astunagoak jasotzeko ere erabili zen, eta baita ontziak desegiteko ere.



"Oiartzun" gindaxa tutuak sartzeko lanak burutzen, Antxo eta Capuchinos arteko moilak eraikitzeko.



Ortoargazkia 1983. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa.

UTM 30N ETRS89 // X: 587779 m // Y: 4797229 m Ortoargazkiak gindaxa adierazten du MEIPI moilen aurrealdean bilakatuz.